

gaz-teak



Getxo
bizi ezazu

Ejemplar gratuito

327 Zb.
www.getxo.eus

>> 2018ko Iraila

III. ZinemaExpress Lehiaketa
Festival de Cortos Express

GETXO EXPRESS

URRIAK 26 - 28 OCTUBRE



Nabarmentzekoak

> GetxoExpressek 2.100€tik gora banatuko ditu bere hirugarren aldian

- > Zabalkunde kanpaina ikastetxeetan
- > Informazio panelen beka



GAZTEENTZAKO
ZERBITZU BILDUMA

Getxo

Zabalkunde kanpaina ikastetxeetan

Urtero bezalaxe, ikasturte berriaren hasierarekin batera, Udal Gazteria Zerbitzuak zabalkunde kanpaina egingo du Getxoko DBH eta Batxilergoko ikastetxeetan. Kanpainaren helburu nagusia da Gazteria Arloak 12 eta 30 urte bitarteko gazteentzat dituen zerbitzu, programa eta jardueren berri ematea. Kanpainaren bitartez, Gazteria Zerbitzuaren asmoa da gazteei helaraztea beren adinerako interesgarri izan daitekeen informazioa. Honetarako *Gazteentzako zerbitzu bilduma* izeneko materiala argitaratu da. Bertan Gaztelekuari, Gazte Informazio Bulegoari, beka deialdiari, hautazko informazio bidalketa zerbitzuari edo Gazteria Zerbitzuak eskaintzen dituen gainontzeko jarduerari buruzko informazioa jasotzen da, besteak beste. Kanpaina hau iraileko hirugarren astean egingo da eta horretarako Getxoko DBH eta Batxilergo ikastetxeetara bisitak egingo dira. Bisitaz gainera, bildumaren aleak ere banatuko dira, gelaz-gela.

60 beka, master eta graduondokoak, Bizkairentzat

Bizkaiko gazteek aukera dute BBK Gizarte Ekintzak deitutako 60 beka eskuratzeko; Master eta graduondoko ikasketak egiteko laguntzak dira. Bekaren zenbatekoa, master edo graduondokoaren matrikularen kostuaren %50 ordaintzeko da, 1.000€ gehienez. BBKren laguntza hau bateragarria izango da beste erakunde bazuen laguntzekin, baldin eta ikastaroaren kostu osoa gainditzen ez bada.

Beka eskuratzeko baldintzak direla eta, besteak beste, unibertitatean edo dagokion ikastetxean ofizialki onartuta egotea eskatzen zaio eskatzaileari. Egoitza fiskala Bizkaian eduki beharko du eta kontu bat eta txartelen bat eduki beharko ditu Kutxabank-en. Eskaerak aurkezteko epea hile honen 13an itxiko da. Harremanetarako: 94 401 78 32 tel.; eposta: becas@bbk.es.

Romoko Gaztelekuaren Programazioa

Iraila

Hilak 2, igandea: TAILERRA: ERLAZIOAK
Hilak 6, osteguna: ESKULANA: HENNA
Hilak 7, ostirala: ASANBLADA
Hilak 11, asteartea, eta 29, larunbata: TAILERRA: SUKALDARITZA
Hilak 14, ostirala: TXAPELKETA: JANARIA JATEA
Hilak 15, larunbata: IRTEERA: BASONDO
Hilak 20, osteguna: TXAPELKETA: FUTBOLINA
Hilak 21, ostirala: TAILERRA: GRAFFITI
Hilak 23, igandea: TXAPELKETA: SUKALDARITZA
Hilak 30, igandea: IRTEERA: ZINEMARA

GureGune
gazteleku

Algortako Gaztelekuaren Programazioa

Iraila

Hilak 4, asteartea, 13, osteguna, eta 21, ostirala: BAKEAREN HILABETE
Hilak 7, ostirala: ASANBLADA
Hilak 8, larunbata: FUTBOLIN TXAPELKETA
Hilak 12, asteazkena: ESKULANA: KORTXOZKO ITSASONTZIA
Hilak 15, larunbata: MASTER CHEF: ALUKA PARATA
Hilak 19, asteazkena: ESKULANA: ORRI-MARKATZAILA
Hilak 20, osteguna: ARGAZKILARITZA ERAKUSKETA
Hilak 22, larunbata: FORTNITE TXAPELKETA
Hilak 26, asteazkena: MASTER CHEF: PINTXOAK
Hilak 28, ostirala: ESKULANA: SUREZKO SUGEAK

GauEgun
gazteleku

IRAGARKIA

ESKOLAK: Lehen eta DBHko erreformatzako klase partikularrek emateko prest. 675007827.

Norberaren iragarkiak direnez gero, aldizkari hau ez da horien edukiaren egiazkotasunaren erantzule izango.

GetxoExpressek 2.100€tik gora banatuko ditu bere hirugarren aldian

Urriaren 26tik 28ra, GetxoExpress film laburren lehiaketaren hirugarren ekitaldia hartuko du Getxok, Udalaren babespean. Lehiaketa film labur baten grabaketa eta edizioa egitean datza, beti ere 42 ordu baino gutxiagoko tartean. Parte hartuko duten 25 taldeak urriaren 26an, ostirala, elkartuko dira 18:00etan Romo Kultur Etxean film laburren gaia ezagutzeko, eta hortik aurrera 42 ordu izango dituzte proiektua pentsatu, grabatu eta editatzeko. Film labur guztiak Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan proiektatuko dira urriaren 28an, 18:00etan. Sarrera dohainik izango da. Parte hartzeko izena emateko epea zabalik dago eta urriaren 11n itxiko da. Taldeek gutxienez 2 eta gehienez 5 pertsona izango dituzte. Sari banaketa

ekitaldia urriaren 28an, igandea, izango da 18:00etan Musika Eskolan bertan. Film laburrik onenak 1.000 euro irabaziko ditu eta bigarrenak 800. Gainera, ikusleek erabakitako sari bat banatuko da, 300 eurokoa. Ikus-entzunezko munduko adituez osaturiko epaimahai batek irabazleak aukeratu ditu.

GazteExpress

Beste alde batetik, gazteen parte-hartzea kultura-proposamenetan sustatzeko asmoz, GetxoExpress-ek *GazteExpress* saria sortu du, 18 urtetik beharagoentzat. Honetan ere, lehiaketa parte hartzeko epea zabalik dago jada eta urriaren 24an itxiko da. Parte-hartzaileek haiek egindako minutu bat baino gutxiagoko film laburrik bidali beharko dituzte epe



horretan. Film labur irabazle urriaren 28an proiektatuko da Andrés Isasi Musika Eskolan eta 150 eurotan baloratutako saria irabaziko du.

Argibide gehiago: www.getxoexpress.com; Harremanetarako: info@getxoexpress.com eta 684 242 813 tel.

TAILERRAK ETA IKASTAROAK: URRITIK ABENDURA

IKASTAROA	EGUNAK	ADINA	ORDUTEGIA	HIZKUNTZA	TOKIA
BIZIKLETA KONPUNKETA	Urriak 8 eta 15	16-30	17:30-19:30	Euskara	Romoko Gazteleku
BIDEO SORTZE-LANA	Urriak 18 eta 19	11-17	17:00-20:00	Gaztelania	Romoko Gazteleku
ZEINU HIZKUNTZA	Azaroak 5, 6, 7, 12, 13, 14, 19, 20, 21, 26, 27 eta 28	18-30	19:00-21:00	Gaztelania	Villamonteko Kultur Etxea
BREAK DANCE. BREAKING DRAMA	Abenduak 19 eta 20	11-16	17:30-19:30	Euskara	Romoko Kultur Etxea
BIDEO SORTZE-LANA	Urriak 4 eta 5	11-17	17:00-20:00	Gaztelania	Algortako Gazteleku

• Ikastaro guztiak dohainik dira eta aniztasun funtzionala duten pertsonentzat ere zabalik daude. Izenemateak: Gazte Informazio Bulegoa (Tangora Etxea, Algortako etorbidea 98). Tel.: 944.660.353; gaztebulegoa@getxo.eus (izena eta nahi duzun tailerra edo ikastaroa eta harremanetarako telefonoa jarri); edo www.getxo.eus/gzteria.

Getxo
hazteko

WANTED

ORAIN DENBORA MUGARIK GABE, ZURE PROIEKTUA NAHI DUZUNEAN AURKEZTU DEZAKEZU

AHORA, SIN LÍMITE DE TIEMPO, PODRÁS PRESENTAR TU PROYECTO CUANDO QUIERAS

Zure proiektua azaltzeko hitzordua eskatu gazteria@getxo.eus helbidera idatziz

Pide cita para explicarnos tu proyecto escribiendo a gazteria@getxo.eus

Informazio panelen beka

Irailaren 24tik 28ra bitartean aurkeztu beharko da Gazteria Zerbitzuak informazio panelaz arduratzeko ematen duen bekaren eskaera, 2018/2019 ikasturteari dagokiona. Getxoko hainbat tokitan daude jarrita informazio-panel horiek. Beka jasotzeko hautatutako pertsona edo pertsonak paneleko informazioa beti eguneratuta egoteaz arduratu behar dira eta, ordainean, 490 eta 690€ bitarteko beka bat jasoko du urte osorako.

Panelak udalerriko gazteentzat interesgarri izan daitekeen informazioa erakusten du, gaika antolatuta. Honako leku hauetan daude jarrita panelak: IES Julio Caro Baroja BHI, IES Aixerrota BHI, CPEIPS Azkorri, IEFPS Fadura GLHBI, CPEIPS San Nikolas Ikastola, Fadura eta Andra Mariko Kiroledegia eta Algortako Kultur Etxea.

Deialdiaren oinarriak eta argibide guztiak eskuratu ditzakezue www.getxo.eus/gazteria web orritik behera kargatuz, Gazte Informazio Bulegoan (Tangora Etxea, Algortako Etorbidea 98; tel.: 944.660.353) edo Herriarrentzako Arreta Bulegoetan.